



GETXO



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Zilarrezko hondoan arbola berdea eta bertatik eskegita galdara baltz bi; enborrean otso baltz igarolaria. Bordura gorria inskripzio honegaz: “BIZARRA LEPOAN KALTEA DAGIANAK”.

DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

En campo de plata, un árbol de sinople del cual cuelgan dos calderos de sable y a su tronco un lobo pasante de sable. Bordura de gules, con una leyenda “BIZARRA LEPOAN KALTEA DAGIANAK”.


AITAMEN HISTORIKOA

Uribeko merindadeko eleizatea. XII. mendean Jauregi oinetxe-koek, Getxoko jaunek, Andra Mari monastegia eraiki eben, eta haren inguruetara bizitzera joan ziran maizterrek eratu eben eleizatea. Jauregitarrak jatorriz Larratiz oinetxe-koak ziran, eta Martiartuko dorreraino zabaldu zituen ondasunak.

Eleizatea fidel erregidore bik zuzentzen eben, eta Bizkaiko Jaurreriko Batzar Nagusietan 47. eserlekua eta botua euken.

Bertan nekazariak, artzainak eta errotari bat bizi ziran; arrantzaleak handik hur itsasadarraren sarreran egoan Algorta auzunean bizi ziran.

Algorta auzunearen loraldia Bilboko portuko itsasoko eta merkataritzako jarduerak gora egin ebenean eta uriko Kontsulatuaren jurisdikzinopean sartu zanean izan zan. Kontsulatuak talaiak egin, talaieruak ipini eta babeserako gotorlekua eraiki eban. 1742an Jaurreriak printzearen gatzeluko (Algorta) eraikitze-gastuak ordaindu zituan.



RESEÑA HISTÓRICA

El núcleo primitivo de la anteiglesia de Getxo, en la merindad de Uribe, se formó con el establecimiento de una serie de colonos en torno al monasterio de Santa María, que pronto se convirtió en iglesia parroquial, levantada en el siglo XII con el patronato de la casa solar de Jáuregui, señores de Getxo, que procedían del solar de Larratiz y que extendieron sus dominios patrimoniales hasta la torre de Martiartu.

La anteiglesia, que estaba gobernada por dos fieles regidores, ocupaba el puesto 47 en el voto y asiento de las Juntas Generales del Señorío de Bizkaia.

Estaba poblada por agricultores, pastores, un molinero y pescadores que habitaban su vecino barrio de Algorta, en la entrada de la ría.

Este último barrio tuvo su florecimiento al aumentar la actividad marinera y mercantil del puerto de Bilbao y entrar en la jurisdicción del consulado de la villa.

Este construirá atalayas, colocará vigías y levantará fortificaciones defensivas. Así, en 1742, el Señorío corre a cargo con los gastos de la edificación del castillo del príncipe, en Algorta.